Erref. kodea: LAF-320-134

Izenburua: Egile ezezagunaren eliz hitzaldiak:

*Repleti sunt oumes.. Guziac bethiac izan ziren*

Mendekoste eta
Omia saindutako
bi prediku -
Norenak? Noizkoak?
19. gizaldikoak?

# Pentecôte

J. M. J.

Repleti sunt omnes Izpiritu Sancto - guziac bethiac içan ziren Izpiritu Sainduaz.

Ethorri zenian Mendecoste, erran nahi da Moisec ekharri legearen ohoretan Juduec zelebratzen zuten eguna, zoina baitzen berrogoi eta hamargarrena, Izraelgo populua Echiptotic atheratu geroz, zoina baitzen oraino berrogoi eta hamargarrena J. Kristo phiztu geroz, mundu bat Jerusalemen zelaric eta Apostoluac bere discipuluekin J. Kristoc erran tokian zaudelaric Izpiritu Sainduaren guaitian, aditua içan zen bet betan haice borthitz baten harrabotsa bezala, etchia ikharrarazteco gisan. Ikhusi ziren orobat denbora berian suzco mihi batzuc bezala Apostoluen eta discipuluen gainian pausatzen; guziac orduan Izpiritu Sainduaz bethiac içan, eta abiatu ziren hanitz lenguaia gisetan mintzatzen: repleti sunt Izpiritu sancto, et coeperunt loqui variis linguis.

Horra, g., egun handi huntan guc zelebratzen dugun misterioa: misterio miragarria, J. Kristoc zerurat igan beino lehen aguindua, J. Kristoc guri merecitua, eta Jincoaren guretzateco amodioari gaindi bezala egin arazten diena. Aita eternalac eman zaukun bere Semia, Semiac bere odolaz eta bere biciaz erosiac gaitutzu; zer othe zen escas gure salbamenduaren akhabatzecotzat, eta gure zoriona-ren osatzecotzat? Hau bakharric: Aitaren eta Semearen gaini sortzen edo heldu den Izpiritu Saindua guri eman zadin, bere Apostoluer J. Kristoc aguindu bezala: ezen aguindu zioten garbethi zerutic egorrico ziotela lurrerat Izpiritu Saindua, munduaren sainduetzeco.

Behar dugu hemen, g., miretsi eta adoratu Jaincoaren ontasuna, eta behar dugu dembora berian Jaincoa othoiztu bere Izpiritu sainduaz bethe gaitzan, Apostoluac eta J. Kristoren bertze disipuluac bezala. Grazia hori othoi presatu hoi ikhartzenkiago galdetzeotzat,
1.º P. dakhusagun lehenic arima baten zoriona, Izpiritu saindua erre-
2.º P. zebitzen duenean. Eta bigarrenecorin zer seinaleac eracutsi dera-
koten Izpiritu saindua arima baten errezebitzea izandela.

1.º P. Eragutzeco arima baten zoriona, Izpiritu saindua errezebitu duenean, ikhusteco oraino arima hartan Izpiritu sainduac egiten duena, aski dugu Apostoluetan egin zuenari behatzea. Hekien gainerat jautsi zenean. Gauza espantagarriac ikhusten ditugu Izpiritu saindua Apostoluen gainerat jautsteko hartan. Haize borthitz baten harrabotsac adiarazten du lehenic heldu dela. Haizearen harrabotsac seinale zuen emaiterat heldu zagotan Kharra J. Kristo bere hausia ohoratzeco eta gorestecо munduaren bazter guzietan, eta ziner hasiac zeramutzan hedoi batzuen pare, ordu beretic berdurateu ziren munduan guzian Ebanjelioaren erauspenec (salbagarriac) berethin. Izpiritu saindua agertzen da bigarrenecorin Apostoluen gainean sua iduri, hetan obratzen duena seinalatzeco itchurapen hartaz. Zer sua argitzen, beroltzen eta garbitzen da zeri ere lotzen baita eta hura. Izpiritua orobat heldu da Apostoluen argitzerat, sustatzerat eta garbitzerat, imperfesioneric gehiago hetan ez iraiteco gisan, lehenago bezala. Gauza bera, g., egiten ohi du Izpiritu sainduac, hura errezebitzen dutenetan



argitzen, sustatzen, garbitzen edo osoki saindutzen ditu.

Zer ziren Apostoluac Izpiritu saindua hetarat jautsi baino lehen? Gizonetan arduntenac, pairoenac, sakhergunac eta arrantzari baizic etzakhitenac. Egia erratеco hiruz urthez Salbatzailea pasaria zen hekhei escola emaiten, Jaincoaren erresumaco egiac hekhei eracusten. Baina hain ziren hagiac, eta [illegible] oraino chehetasunekin eracutsi frango misteriotan ez baitzuten deusic ikhusten. Harren pasiamenez bertzalde escandalisatuac ziren, lehenbizian etzuten sinhetsi nahi phiztu zela, harren aguintzez duda zuten, hainbertzetaraino non Salbatzailea zerurat igaitearekin erreguratu baitzitzaioten minki bere sinhetsgaitzaz eta bere bihotz gogortasunaz. Exprobravit incredulitatem et duritiam cordis. Eta etziren gutiago ilhaunac eta izipe-rec: pasioneco denboran utzi zuten Salbatzailea; gelditu zen bakharric ukhatu zuen gero, sehi batec erranaren gainean. Eta natir J. Kristoc, dudaric ez ukhaiteco gisan, seguratu zituen bere phiztear, gordeic zauden Juduen persegi beldurrez.

Baina, g., bertzeric bilhacatu ziren Apostoluac Izpiritu saindua gainerat ethorri zaizkotenean! Sakhitateric handiena eman zuten berehala Izpiritu sainduac, misterioric gordeenez argitu zituen, erlijioneco egia eta egunbide guziac eracutsi zioizkiten. Deusic barnean harrela ikhusi zuten berar, ordu artio bertze gizonec elgar lagundurik hanitz munduan ikhusi ahal etzutena.

Miretsgarri zela egiazki, g., ikhustea eta aditzea, arrantzari

errunes hetkiec. Izpiritu sindua ezzezebitu ondoan, Jerusale-
merat alde guzietaric ethorria zen munduetzaco eracusten, egi-
aric handienac, misterioric gordeenac, erlihioneric sinduena;
han ziren guziec aditzeco giza muntratur, nahiz hetkien
linguaiac etzuizten secula ikhasi. Harritua zagon mundatze
hura guzia, eta hai ziren batzuec bertzeia galdez: nola bada
Galileaco giza hoiec, eta betzuec gure herrietan ican eduinac,
muntzo zaizcu bakhotchari gure linguaian? quomodo nos
audivimus unusquisque linguam nostram in qua nati sumus?
Hoiec verduratu zuen colpez berala J. Kristoren Ebangelioa
mundu guzian; ezen oste handi hura Apostoluen erranez eta
Apostoluen obra miragarriez hunkitua, aditu eta ikhusi
zuenaren berria emaitez lehiatu zen, zoin bere herrian.

Baina, g., ekhusten bakhoarric jakitatea eman Apostoluei
Izpiritu sinduac. Zauntzi eta bethe zituen oraino behar zen
indarrez, sustengatzeco munduari eracustiaz manatuac ziren
egiac. Izpiritua sindua ezzezebitu auntzimau eta Izpiritu sindua
ezzezebitu ondoan, zer diferentzia Apostoluetan! Lehenago
atheratzerat mentura etzitezkeen giza ilhaun eta iziper
hetkiec, lurreco puchantzia ikharagarrienen auntzinerat
agertziaz erdira gehiago lotsa den gutiena. Libertate edo
ausia sindu batekin eracutsi zuten, J. Kristoren Ebangelioa
handien mehatchuez, tharmenten bortiztasunaz, eta heriot-
-zearen beraren beldurraz casuric egin gabe. Urrundu ikhes



egiten baitzuten persecusionecari, zoriona handienarentzat zauca-
-ten Jesusen gatic sofritzia: ibant gaudentes, quoniam digni
habiti sunt pro nomine Jesu contumeliam pati. Urra-
-men erzatuaizentrat, thormentetzat eta heriozentrat me-
-presiaric baizen ez dute; bere parentzia arthemain gortuiken
dituzte bere etsaic handienac; bere odolaren gainean asautatzen
dute eracusten duten erlihionea, eta oraino hazcartasun eta
animu bera sar-arazten dute bere plazaco ututen dituztenetan.
Ba, g., erran berala Izpiritu sindua gaineko heldu zaugoten
apostoluer holaco indarra, J. Kristoren Ebangelioa munduan
establitzeco cain guzien contra. Izpiritu sindu berac hazcartu
izan ditu eta sustengatu, apostoluec berala ondoan bere odola
ichuri izan duten martirac J. Kristori eta J. Kristoren erlihi-
-oneari bihurtzeco lekhucotasun lorios bat.

Eta, g., Izpiritu sindua ez da jautsi bakharric Apostoluen
eta bere plazaco apostoluec ututzi zituztenen gainerat. Izpiritu
sindua jautsten da oraino edozein arima hura ezzezebitu nahi du-
-tenen gainerat; eta obra berac egiten ditu arima hetan: argitzen
ditu, bere tharrar suztatzen ditu eta hazcartzen bere dohainez.
Argitzen ditu emanez hekhiei zuhurtziaraco, adimenduraco,
jakitateraco eta contseilurako dohainac. Hazcartzen ditu
emanez indarreraco, deboсioneraco eta Jaincoaren beldurtasu-
-nerako dohainac. Huna laburzki dohain hoien ahotetasuna.
Zuhurtziaraco dohainaren bidez, Izpiritu sinduac eracusten

du arimari mundu huntaco gausen ezdeustasuna, inesperarasten diozca ontasun iragancorrac bethiereco ontasunez bakharric estecatz ~~eracasteco~~ et hekien bakharric bilhatzeco. Salomon erregiac estimu gehiago zuen gisa hortaco zuhurtziaz, munduco aberastasun eta erresuma guziez baino, zuhurtzian causitzen zituelacotz girouaren zorionaren inderakhetenac oro. Zuhurtzia horrec eracusten zioen ezdirela deus behere huntaco guziac, eta balio duen gausa bakharra dela Jaincoaren maithatzia eta zerbitzatzia: vanitas vanitatum et omnia vanitas preter amare Deum. Hoi eta bera eracusten dauco Izpiritu sainduac zabaltzen daizcumian begiac eta ohart-arazten gaituenian munduco ohore, putasun eta atseguinen flakheriaz, zoin laster badohazin, zoin guti asetzen daucuten bihotza, eta horrekin oraino emaiten daucunian guretaco gaiden zorionaren gutizia.

Adimenduzco dohainaren bidez, Izpiritu sainduac eracusten diozki arimari J. Kristoren erlichioneco egiac behar den hedadurarekin hautatu duen estatuari behatzen diren eguibidiac bethetzeco.

Sakhitatezco dohaina naturalezaz goragoco argi bat ~~eda~~, zoinarea bidez Izpiritu sainduac eracusten baitio arimari lurreco gausez zer gisetan behar den bakhatu, Jaincoa gana hec egitian iraun ditzan ohedetic ez aldaratzeco, erran nahi da hetaz baliatzeco Jaincoa ohuratzeco eta bere salbamendua egiteco gisan.



Contseiluzco dohainaren bidez, eragut-araztoneta hauta-arazten daizcu Izpiritu sainduac gure arthen ohederat heltzeco zuzenac eta seguroac, gaizthia ongiarentzat hartzetic beguiratuz, halaco edo halaco casuan zer egin behar dugun eracutsi eta egiazco berthutea hala ez denetic berechten laguntzen. Adimendua argituz eracutsi ondoan zer egin behar dugun, Izpiritu sainduac harcartzen du gure borondatea, ein behar ditugunen pratican ezartzeco, emanez gure arimari indarrezco, deborionezco, eta Jaincoaren beldurtasunezco dohainac. Indarrezco dohainac gure naturalezaz goragotezala ezartzen gitu, salbamenduari traba ein dezokhetenen gaineic urruntzeco, edo gu baithan funditzeco, gure etsai eta tentamendu guzien garhaitzeco, gure burnen behar bezimbat barthatzeco, gaizkitic beguiratzecotzat, ongiaren egitecotzat, eta zeruco erresumaren horrela irabaztecotzat. Izpiritu sainduac oraino dohortaz ez gitu utzten, nahi gabiac beldu zaizcunian soberatristezietan erortzerat.

Deborionezco dohainac erlichioneco pratiken bethetzia errextetsa eta gozo cauri-arazten darocu: Jaincoaren eta hurco lagunaren alderaco eguibidiac bethe-arazten daizcu, Jaincoaren alderacoac Jaincoa maithatuz, eta errespetatuz Aita gisa; hurco lagunaren alderacoac hura maithatuz eta gure ahal gurian sokhorrituz. Jaincoaren beldurrezco dohainac Jaincoaren damustaketic gibelatzen gaitu, eta gerthatzen ahal zaucun gaitzetan handienarentzat har-arazten dauco bekhatua. Beldur horrec orobat atkhartzen gaitu gorphutzra

bekhorric hil arar desatheteneo casuric eregiten, obeditzeco
guriar gainetic gorphutzra eta arima bethicatz galdetzarthecenic.

Gurien beurnau Izpiritu sainduac bere egoitza egiten
badu arima batean, sainduteen du arima hura. Ez chailki
ezarriz hura baithan, bertzenaz ere Jincoaren adichkidecta
zerucco premiu egiteco ducen grazia, bainan oraino khendus
eta suntsi araziz grasiazco estatuan berean gelditzen zaizcoit-
-zin defautac edo perfesione escasac. Zoinbat ezdugu guriec
jaidura gaichto. Estimuz eta amodioz bethiac gira gure
burucntzat, ezdeus hezien ondotic gabiltza ardura; sentsuen
atsegin ein desathetenen bilhatziaz lehia dugu; zoinbeza gau
ezechtasunic handiena duguna sokhatzeco eta samurtzeco be-
-retsala, behar ezden zerbeit egina zaucunean. Izpiritu sainduac
gaitzkerako jaidura horietaric garbitzen du arima, suac bur-
-dina bere zikhinietaric becala, eta bere gorphutzean estecatua
zeuca etkhartzen du zeruari behatzerat creaturac utziric.
Ahitasuna, lecattasuna, inocentzia, ezhtasuna, umiltasuna,
paucutzia, modestia garbitasuna, horra hitz batez dio J. D.
Pauloc, Izpiritu sainduac obratzen duena arima batean, eta
bere aldetic obratzen duena arimac denbora berian Izpiritu
Sainduarekin. Ba, g., deus onic egiten badugu, Izpiritu
sainduari esker egiten dugu: Izpiritu sainduac hasten eta
akhabatzen du gu baithan gure salbamenduco egiteco
premiatzua. Izpiritu sainduac ekhartzen ditu hainbertze



arima saindu, munduco gauzen utzterat, bere burue ukhu egite-
-rat, khurutzeen gogotic besarcatzerat eta kharturki Jincoaren
zerbitzatzerat. Ochola, g., bagima gisa hartan Izpiritu sainduа-
-ren egoitzac izateco zorionа; huna bertzenaz orai hartaco seinaleac.

2º D. Jincoaren Izpirituac gure bihotzetaric casatzen ohi du mun-
-duaren izpiritua, munduaren izpirituari jazartzeco indarra emai-
-ten dauen, caritateric hertcheenaren bidez bateratzen ditu fededunen
bihotzac eta khar saindu bat Jincoaren zerbitzuco gu baithan
sor arasten du: seinale horietaric ezagut dezagun beraz Izpiritu
sainduа gurekin dugunez.

Jincoaren Izpiritua eta munduaren izpiritua elgarren etsai dira;
contraco legiac eta eracunspenac dituzte; ezditazke beraz biekin at-
-chiz betan; ez da bitarteric: behar da bat edo bertzia utzi, bati edo
bertziari jarraiki.

Zer da, g., munduaren izpiritua? Urgulua, bere buruaren estimua,
bertzies gorago altchatu nahia [gaitzentzeco gutizia], ontasunez gosea [ezin asia], ez mortificatu nahia,
penitentziari ahalaz ihes egitia, horra zer den munduaren izpiritua
eta zere gal arasten duen mundua. Munduaren izpirituaz hartua
dena ez du bertzies gorago altchatzia baizic bilhatzen, ez du lurreco
estimu eta ohorea bertzeric amenten, duena ez du aski causitzen, nahi
du ukhan ez duena; baliabadu bere baithan zerbeit onic edo ederric
lakhet du harren comparat agertzia, laudatua izateco. Esnatia [da]
munditie [zikhan] ukhan, burrugietan zurzenenez ez du casuric, legetan
sainduena hausten ditu, aurditkitzen du fedearen ututarria,

erlichionen egien contra altchatzerainocoan orobat.

Bertzelacoac baitira Jincoaren Izpiritua deramaan arima baten sendimenduac. Ez du hanac umiltasunezco eta sumisionezco sendimenduric baizen. Gizonen estimuaz eta bertzen choreez ez du casuric, itses egiten diote; baldin badu bereniac zerbeit onic eta ederric, harren campoerat agertzeco plazan, athalaz gordetzerat egiten du; laudotasunic handiena badakharke gauza guzietan; ez dabila nihor aintzindunetic urrunda buruzagier jarraitzetic, eta egiaren contra altchatzetic; osoki sumetitua da legeari, eta erlichione egiac dudaric izan gabe sinhesten ditu. Holacoac ziren Apostoluen sendimenduac Izpiritu sindua errezebitu zutenean. Mespreziorik baizen etzuten munduco ohorecentzat; loria zuten umilituac izaitiaz; etzabiltzan bateren lehenbiziko plazan ondotic, contrarat munduan zitaztzeco suyeric handienentzat zaurcaten bere burua, tanquam purgamenta hujus mundi, eta bere solas eta urhats guzietan etzuten Jincoaren ohoratzia baizic gogoan.

Munduaren izpirituaz hartua denac ontasun biltzia bere ametsic eta lanic handiena. Ontasunetan ezartzen du bere zorionia eta ez dauca dohatsutzat fortunaz laguntzen ditienac bertzeric; errumesac harren beguietan dohacabe dire. Harren ustez oraino aberatsari eman zaio ohoratzia izaitia eta menpreziatua izaitia pobreari.



Bainan Jincoaren Izpirituac bertze gisaz eracusten daucula zuzen ontasunez jujatzen. Izpiritu sinduc hargatic erraten daucu errumesac direla dohatsu, zeruco erresuma handia heltzuntzat baitago, eta beriz aberatsac dohabe, zeruco erresumara sartzeco traba baitira aberastasunac. Harra zertaco errumestasuna maithatzerat eta aberastasunari casuric ez egiterat ekharzen gaitzen. Izpiritu sinduazen egoitza bilhacatu zirenean, sendimendu beretan aurkhitu ziren Apostoluac eta bertze diziipuluac. J. Kristori jarraitzeco guziac utzi ondoan, bertzec emaiten ziotenaz bizi ziren, eta errumes izan zuten ben bizi guzia. Lehenbiziko girichtinoec arobat etzuten deus bereric, zuztenac saltzen zituzten baliua guzien artean phartitzeco beharraren arabera: hain hecalhki behatzen ziren Izpiritu sinduari. Nia ditzagun gure contzientziac ikhusteco sendimendu berac ditugunez ontasunen alderat: ez du Jincoac galdetzen ontasunetaric bilhuz gaiten erraldhi; bainan bederen bihotza hetharic ezteatzetic behar gare beguiratu, errumestasunaz eta aberastasunaz bardin casu egiteco gisan. Berar errumes bagare nola jasaiten dugu gure ez ukhana? Pazientzi othe! Aberats bagara, gure ontasunez nola baliatzen gare? Guretzat soberas daguna, beharren sokhorritzeco othe daucagu? Gurien utzterat ekharria othe gare, Jincoac horiek galdetzen balu? eta zerbeit galtze heldu zaucunean, ba othe dakigu Jincoaren nahiarat errortzen? Hala bada, Izpiritu sindua gurekin dugu.

3.° Munduaren izpirituaz hartua denac ez du nahi mortificatu, bilhatzen du contrarat gurikhi bizitzia, penitentziari eta bekhatuaz

itses egiten

Zer arthadu bere nahicaria gurien asetzeco! Zer antsia plazer-usta gurien bere burnari emaiteco! Athalaz gurithi dabilca haragia, bere jaidura tzarrer jarraitzeaz ez du cansiu. Aisen ondotic dabila bethi. Cristau handiener hobendu ziote ere, erremunda penitentzia egitia gogoratzen baitzaio!

Jincoaren Izpirituaz hartua den arimac bertzerie egiten ohi du. Jaidura gaichtoac erditu bakharric zapatzen, baina orainu bridatzen ditu jaiduretan buenac eta zuzenenac: ukho egiten dio bere burnari; sentsuac mortificatzen ditu, penitentzia egitia, eta Jincoac egorri ukhurutzien ukhorriatzia maite du bere bekhatuen harrela ezetatzeco.

Ikhusi dugu, gu, Apostoluec Izpiritu Sainduac eman zioten indarrez duduratu gabe goor egoiteco persecuzione gurien contra, mehatchuen, thormenten, eta heriotzen latzgarrienen contra. Indar beraz jauntsten gaitu harzen eresatzeco zarnina duguniac: munduaren eintzahalac orduan alferretan dira Jincoaren legetic gure zeihar-arazteco; munduaren jujamenduz erranez eta persecuzionez gorago ezartzen gitu Izpiritu Sainduac; ohidera gaichtoer ez gare behatzen; gaitzki egitetic gibelatzen ditugu gure moneeac; ez gare ahalge berthutearen goraki praticatzeaz, berthutear mesprezioatzen dituztenen aintzinean; eta berric erlisionearen alde jatziaz ez dugu faltatzen, atacatua dela ikhusten dugunean.

Erran dugu orainu Izpiritu Sainduac bateratzen eta elgarri josten bezala dituela fededunen bihotzac amodio hertsi baten bidez. Apostoluen demboraco giristinoen elgar maitatzeco amodioa hain handia eta ukhartua, non ez baitzuten bihotz bat eta arima bat baizik egiten. Horra beraz zerentaric ezagut dezakegun Izpiritu Saindua gu baithan dugula, hurco lagunarekin bakean bizi bagare, bakearen etsai handienekin berekin, afruntuac pazientki jasaiten baditugu, gure etsaiac barkhatzen baditugu eta gaitzki egiler ongi egiten. Aithor dezakegu, berthute hanitz eta obra hanitz galdetzen duela Izpiritu Sainduac gu ganic, gure arimetan bere egoitza egiteco, baina, gu hortaco behar diren laguntzac emanez, eta orainu bide hortaz zoriona handienerat gure bidaltzeco. Halabiz.

J. M. J.

J. M. J.

Vidi turbam magnam quam dinumerare nemo poterat: ex omnibus gentibus;... stantes ante thronum et in conspectu agni; amicti stolis albis et palmæ in manibus eorum. — Ikhusi izan dut oste handi bat, ezin khonda zitakeen berin handia; nazione guzietarik bildua; bildotsaren aintzinean zagozila, et arbolatekere adar batzuec escuetan zaueatelaric. Zer moienez gare, g., heltzen ahal sindutasunerat? Gauza bat da hartzeco, segura Jincoac nahi duela gu sindu izaitia, gu sindukhi biritzia, eta nahi duelacotz gu sindu izaitia emaiten daucula behar ditugun grazia guziac sindu izaiteco. Ezen fedeac erakusten deraucu eta sinhetsi behar dugu ez dezakegula deusere grazia gabetaric et Jincoac ez darotkula manatzen egin ez dezakegunic deusere. Seguratuac gare beraz Jincoaren aldetic ukhanen ditugula behar den bezimbat grazia sindu izaiteco, sindukhi biritzeco, ezin ditakeena mana beilerake bertzenaz eta onegi eta zuzeni baita hartaco. Bada orai, g., noren escuco da gure sindutasuna; guhorominen escuco, eta gure sindutasuna bezin ongi, gure zoriona. Horren sinhesteco eta hobekhi hortaz seguratuac izaiteco, segi nezazue eni arrazoinamenduari: ez bagine sindu izaiten ahal, ezin bertze hoi, sindu ezin izan ahal hai, jen litake edo garhaitu behar ditugun trabetaric, edo bethe behar ditugun eginbidetaric. Bada sustengatzen dut ez duguela ezin garhaitutzeco trabaric eta ezin betheteco eginbideric. Eta frogatzat ez dautzut ekharrico sinduen exempluez bertzeric. Sinduen caintu izan dituzte gure

ditugun traba berac, handiagoac ere batzuetan, eta berriz ez dugu bethetzeco, siaduen, sindu bilhaacatzecotzat, bethetzeco ukhan ditusten egina eguinbide gaitzagoric; beraz hec berin ongi sindu izan gitazke.

Zoin trabec gaitusten, g., gibelatzen ahal, gure ustez, sindu izaitetic? Traba horiec edo gure baithacoac dira, edo campotic zaizcu jiten. Gure baithacoac, hec dira gure flakezia handia, gure jaidura gaichtoac, gure ohidura tzarrac, egin ditustegun bekhatuac, eta penitentziaz orai borratu behar ditugunac. Horra, dugu menturaz erraiten, hura sindu bilhaacatzera utzten ez gaituena, edo sindu bilhaacatzia arras gaitz egiten duena. Nola salba, dugu erraiten oraino? zerua irabaztecotzat behar da bortcha egin bethi bere burnari; behar bethi bere burnaren contra guducan hari; behar dira zaphatu bere jaidurarik errotikenac, maiteenac; behar zaio egin ukho pasioneai lausengatzen dituenari; dorpheegi den gauza bat da hori; pasionerik gabe izan behar litaike; hain galdua ez den naturaleza bat ukhan behar litaike. Estacuru horiec, nola, g., ikhasdetzu? estacuru horiec nola ezezta, ardiz burrerat? Sinduen exempluaz. Erraten dugu flacoac garela, pasionerik bortitzenen contra guducatu behar dugula, sindu bilhaacatzeco. Baiñan beguira gaiten uste izaitetic sinduac etzirela gu berin ongi flacoac, eta pasioneez gu berin betheac. Ba segur, g., gu berin flacoac ziren, pasione tzarrez gu berin bethetuac ziren, eta gero beren flakezia eta beren pasioneez baliatu izan dira sindu bilhaacatzeco, eta zeren



baitzren gaichtoric, nakhurric heien pasionetan, hura chuchendu izan dute, pasione hec bertze zerbutchuetarat ekharriz. Horrela S. Madalena, maithatzeco pasioneaz hartua zena, eta aintzinean gauza tzarri estecatu zena, estecatu zen Salbatzaileari bere bihotzeco sukhartasun guziarekin. Horrela J. D. Paulo, lehenbizian herrarie borthitzenaz sentatua zena J. Kristoren contra eta haren dicipuluen contra, eta gero herra borthitz hura aldatu, zuen ekharri (handi) sindujenerat gure erlihionè sinduaren sustengatzeco. Hori da, g., gure ere egin dezakeguna eta egin behar duguna, sindu bilhaacatzeco. Flacoac gare, orduan humilia gaiten Jinkoaren aintzinean; pasioneac baditugu, orduan contra egin dezotegun, hainbertze direnetaric urrunduz, eta bilhatu behar ditugunetarat itzul-araziz.

Dorphe da, dugu erraiten, hainbertze jaidura gaichtoei jazartzia. Baiñan ez othe zaizte orobat dorphe izan sinduei? Eta orduan zertan ez guinezake egin heiec egin izan dutena: non poteris quod isti et istae? Arrazoin hortaz zen S. Agustin baliatzen bere buruaren contra guducatzeco, senditzuen zuen gogorki zoin gaitz den ukhano egitia munduari, eta munduco plazerei; bere creaturentzaco estecamenduen urratzia, creaturen amodiotic bere bihotzaren berechtea; baiñan bertze hanitzec, zion bere buruari; bertze hanitzec, nola holaco trabac garhaitu izan dituzte, eta heldu izan dira bere buruen sindutzerat garhaituz, zaphatuz pasioneac? zertaco enezake egin bertze hainbertzec? ez othe dohaz ene onaz, heien onaz zohan bezenbat? non poteris quod isti et istae.

Ez dezagun beraz, g., erran gehiago, exemplutzat emanac zaizcun

zeruco dohatsuac, perfetac eta sainduac zirela, guc egiten ez duguna
egiten ahal zutela. Ouhesten dugu gisa hortan pratica guerathela
berthutia, saindu baguine, errechthiago; bainan ez othe gare saindu
bilhacatu nahi? eta hil beharco garenean, ez balimbagare saindu, zer
izanen gare egun batez? Damnatuetaric. Eren ez da bitarteric: be-
har dugu edo bethi erreguatu sainduekin zeruan, edo bethi
sofritu damnatuekin ifernuan.

Bainan jeneu zaio norbeiti gogorat, sainduec ez dute egin nihi
berimbat bekhatu; eure bekhatuen noubreac eta handitasunac
izitzen nau, eta eremaiten derautzi zeruan nihoiz sar ahal izateco
esperantza.

Egia da, g., sainduen artean gehienec begiratu izan dutela bathaioco
inozentzia; ihes egin izan dutela bekhatuari eta bekhatuaren ocasi-
-onei: heriosari bezein gehiago, eta munduco ontasunentzat, ohore-
-entzat eta plazerentzat ez dutela izan nihoiz preziorik baizen. Bainan
zoubat heien artean orai gure berimbat bekhatu egin zutenac;
penitentziaz borratu izan dituzte gero; heien bazthamandu arduxti
izan dute, izan dute graziazco estatuan, eta hor ditu saindu egin.
Bekhatuac hetsi zeruna, penitentziac idekhi zabaldu izan diote, eta
horra g. gu ere zer bidez giren orai zeruen bererat heltzen ahal.
Zoubat nahi bekhatu egin izanic ere egun danic, borra ditzagun
penitentziaz, bainan egiazco penitentzia batez, bainan arthen burasmi
graziazco estatuan egon-arazico gaituen penitentzia batez, eta zeruco
sainduetaric izanen gare.



Erranen dut gehiago: sainduen exemplua erakusten deraucu orano,
tentamenduec, ocasionec, estatuco langetec ekhar ditzazketen
trabac salbamenduratzat, nola ararico gaituztela saindutasunerat
nahi dugularic, saindu bilhaca-arasico gaituztela nahi dugularic.
Ba nazthi badira tentamenduac saindutasunetic urruntzen gai-
-tuztenac; bainan zoin dira tentamendu hec? eros-arasten gai-
-tuztenac bekhatuan, ezen garhaitzen ditugunec salba-arasten
baizic ez gaituzte contrarat. Sainduac izan dira tentatuac gu
bezala, eta gu bezein gehiago frango aldiz; etsaia jarraitzi izan zaiote
mortuzat bererat; Bainan haren garhaitzeco Jaincoaren harmac
hartu izan dituzte escuetan: othoitza eta ben burnen alderaw atzar-
-tasuna; harma berez balia gaitzen, g., eta garhaitzar athoracogare
gure tentamenduetaric, eta garhaitia horrec saindu bilhaca-arasico gaitu.

Ocasione gachtoac eta galtzeco irriscuz inguratuac garela, erranen dugu
orobat; bainan ocasione gaichto eta irrisca horiec gure nahiz othe
ditugu, eta ihes egiten ahal othe diotegu? Hala balimbada zertaco
egon ocasione hetan, zertaco juan ocasione hetarat? Estrepus edo
erimbertzez baizic ez dela ere cantutzen basirem sainduac zoubeit
ocasione gachtotan (ez izanic hetentzat aras gachtoa) beldurria bizimaz
hartuac ziren bekhala; eiaraiten ziren ihesari, edo atzamac zauden; eta
guc uste dugula salbat juanez ocasionerie gachtoenetarat, etche
batzuec hautatuz, presuna batzuekin ibiliz! Zer enganioa, g.!
Zuhurtzia escasac ez du behinere saindurie egin izan, ez ditake
saindu izan precaucionea hartu gabe, horrela bezaz g., ez ditzagun

gure burua lausenga, engana; behar dugu ihes egin ocasioneari
eta ez balinbadugu ihes egiten ahal, behar dugu ocasionea ttipitu;
egin dezagun othoitz Jaincoari orduan, gauden atrarriac gure burua
alderat orduan, eta ez gare erorico. Baina zer, g., sinduac, ocasione
gaichtoetari urruntzeco, juan badira mortuco irijarrendetarat, gu ez
girela behiratuco hobeki galtzen hai gaituen etche baten, presuna
tzar baten ukhterat! Ez dezagun beraz erran ez gehiago ez garela sindu
izaiten ahal, erran dezagun hobeki ez garela nahi sindu izan. Ba-
narthi, gauza bat da guti erretcha sindu izaitia munduco irriscuen
erdian, plazeren charmei jazartzia, errespetu humanoaren ostiatzia.
Baina sinduec ez othe dute ukhho egin lurreco plazer gaichto guziei?
sinduac ez othe dira errespetu humanoaz gorago alchatu, g. izanen ezarai
errauthirunac ez othe dituzte ikhusi cauzic egin gabe, Jaincoari ba-
lakharia behatzeco, Jaincoari bathharic leial egoiteco?
Ah! g., bertze gudurie oraino gasau behar izan dituzte sinduec;
gu beino herstura handiagoetan aurkhitu izan dira. Etzien pharatua
gizonen trufei et mespresiei bathharic, baina oraino dio Apostoluac
behar izatu izatu paratu rigorradac, presundegiac, burdinac, thormentac,
eta heriotzia, sancti ludibria et verbera experti.
Guri aldiz oraino zenic ez dauen eskhuneac biziaren sacrificioa
galdeiten, ez dela oraino, nahiz gauzeki bertzenaz, persecutatua odoleraino
ez dauen beraz erraten paira dezagun heriotzia haren gatic, baina ba
bathharic gure pasioneac zapha ditzagun, eta utz ditzagun munduco
ontasun eta plazerendaco ditugun gutiziac. Ba othe dugu gisa



hartan dretcharic erreuguratzeco, ez garela sindu bilhacatzen ahal,
edo naiz ki dorphe zaucala sindu bilhacatzia; ukhuniz sinduei go-
-ta zaiotena sindu bilhacatzeco, eta guri heien aldian zoin guti
zaucun hartaco galdeina.
Erraten dut asthenian izan direla sinduac gure estatu berian
eta gure egiteco berekin. Izan dira sinduac aberastasunian, eta
errumestasunian; sinduac tronuaren gainean, harmaden burnan,
eta ilhuntasunian eta aphaltasunian; sinduac escontzan, eta
bathhochtasunian, hitz munduco estatu eta zaudirian guzietan.
beraz ez da ez da sindutasunarekin juan ez ditakeen estaturic.
Nola beraz sindu bilhaca estatu suerte hortan guzietan? sinduac
hetan biri izan diren bezala biziz: aberats eta carguetarat altcha-
tuac izan diren sinduac, beren ontasunez baliatu izan dira pobren
laguntzeco, eta beren carguco botherea, desordrien urrun atchikitzeco
eta Jaincoa beren arguicoei lorifica-arazteco. Horra aberatsec eta car-
gudunec sinduen exemplurat egin behar duguna. Errumes izatu
diren sinduac, sindu bilhacatu [iran] dira pairaturic hartua, bere escasia eta
nahigabe guzien erdian Jaincoari sumetituac egonez. Eta horra guc
ere, errumesec, egin behar duguna. J. Khristoc bertzalde erranada
pobresiac emaiten derauela deetcho bereziki bat zeruco erresumari buruz
beati pauperes spiritu, quoniam (ipsi Deum videbunt) ipsorum est
regnum coelorum. Gure escasiac beraz sofri ditzagun pazienki eta
izanen gare sindu.
Escandua zaren, g., ainitz zaitzu escontzan bizi izan dien sinduec.

Ikhusi izan dira gizonac saindu bilhacatu direnac emazte txar eta bihotzenekin, hala nola emazteac gizon txar eta debochekin. Senhar emazteac, ez beraz errenguma eta sustenga etzatzaketela elgarrekin saindu bilhacca. Elgarri causitzen dituzketen hutsec eta era-berac hel arazi ditzazketé sainduntasunerat caritatea eta pazientzia elgarren alderat noiz nahiden praticatuz. Arthoz gaitu g., izan dira saindu ofizio gucietan, harmadetan, laborantzan, artzaingoan, nausigoan, sehigoan, campañan eta hirietan. Eta saindu horiec nola egin dute, saindu bilhacatzeco, zeruaren irabazteco? Guc egun oroz egiten duguna, bertzeric deusere; ez dituzte utzi hartaco beren ofizioac eta beren lanac; baina egin izan dute Jaincoarentzat eta zerucotzat guc munduarentzat eta lurreco onaren gatic egiten duguna.

Ez ditugu beraz, g., gauza handiac egin behar saindu izateco; aski zaiku bekhatutic begiratzea, eta ongiaren praticatzea; declina a malo et fac bonum, eta hori bere egin dezakegu. Eta zer, juramentuzco eta arnegu egilea, ez duzula zure mihia bridatzen ahalco, juramentu eta arnegu heien egitetic ez utzteco! Lohia, ez dituzula zure ispiritutic et bihotzetic urruntzen ahalco, gogoeta eta desiruunde ahal gazarihei, ez duzula galtzen ahal ohidura txarb eta itsusi hura, ez duzula utzten ahal etche hura, presuna hura! Hordia etxarela egiten ahal ostaturat juan gabe, edo izariz campoan gabe! Bertzenaz jabetuaren zarena, ez duzula bekhatchari utzten ahal eta bihurtzen ahal berea? Bekhatorosa, nola nahi izan zitez, barcuatzaike ihes egiten bekhatutic, begiratzen bekhatutic, zure saindu huntan



galdeitzen duela hori ikhusten baitun,! zertaco bada ez begira gisa beraz bekhatutic, saindu izateco, zeruaren merezitzeco?

Zer behar da orano saindu izateco? ongia praticatu - fac bonum erran nahi baita Jaincoaren manamenduac eta Elizarenac begiratu, eta giristino berthutei jarraiki. Jaincoac ez daucu manatzen miraculuen egitea; beren berthuteac ditu hautetzeco saindu bilhaca-arazi eta ez beren miraculuec, edo hobeki obratu izan dituzten miraculuren handiena credaçen da, berthutearen contsirio praticatzea eta beren bizi sainduaz zeruaren merezitzea.

Bertze ditzagun lealki gure egintzeac eta hori izanen da miraculu bat sainduturen gaituena, dio S. Crisostomoc, - virtutis curam habeas, et miracula patrasti. Gure abarizioa aldatzen badugu zaraitasunerat, escua zabaltzen badugu pobreari amoina emaiteco, escu ihartua zen bat sendatu izan dugu: siccam manum sanasti. Mundutarren libertimendu harroetarat, eta compainia txarrietarat juan orde, bahi bagohari J.-Kristoren ikhustera Elizan, eta harren menbro sofritzen dutenetan, maingu bati chuchendu bezala dugu claudicanti pede incolumitatem restituisti. Garbitasuna eta modestia colpe detzarkeen zer beitetarien begiac aldaratzen baditugu, itsu bat bezala! argitu izan dugu: caecum te illuminasti. Canta arimac, cantu txarrac cantatu orde, elhe deshonestac erran orde, baliatzen bagare gure mihiaz Jaincoaren laudatzeco, hobetki mintzatzeco, mutu bat bezala mintza-arazi izan dugu. Horra, dio berriz dotor sainduac, Jaincoac galdeitzen daizcun miraculuac: obra onac eta berthutea.

Siñdu iran zitazte beraz, nore bere estatura, bere ofiziua eta bere lanac utzi gabe. Zu baithan da Jincoaren erresuma; zu meniau da, ez duzu bilha joaiteric urrun. Gaurgoitic bethe dezazun Jincoaren nahia, eta siñducetaric iraun zare.

Siñduac haurrac zare oro; othoitz dezazun beien imitatzeco grazia ardiesteco, othoitz dezazun bereziki nore zure patroina. Zure estatu beraren biri iraun direnac har dezazun modelatzat, eta bide hortaz helduco zare beren ondotic zeruco egoitza dohatsurat. Halabiz

J. M. J.

J. M. J.

Vidi turbam magnam, quam dinumerare nemo poterat, ex omnibus gentibus et tribubus, stantes ante thronum et in conspectu Agni; amicti stolis albis et palmae in manibus eorum. — Ikhusi izan dut oste handi bat, khonda etzitazkena, nazione guzietaric bildua; bildotsaren aintzinean zagozin; churiz jauntziac ziren eta arbola adarrez batzuec bazauzcaten escuetan.

Haizu zaucu, g., izpirituaz eta bihotzez aintzinetic altchatzia, dohatsuen egoitzarat, J. D. Joanic bezala ikhusteco eta miresteco heien loria. Zorion bererat heltzeco guziac hartuzen gaitu horrela. Hori eta berada Elisac bilhatzen duena, heldu den igandeco pesta ederraren bidez. Ez ditu nahi bakharric ohoratu hainbertze saindu betan, bereziki edo bederarca eta hertsatu edditzarthenac ohora, bainan nahi gaitu oraino ekharri guburuaz sindutzerat; zerna idekhiz gure begien aintzinean, bilhatzen du gartzaitzia eta erestatzia gure nagitasuna Jaincoaren zerbitzuan, eta hortacotzat erakusten deraizcu adin guzietaco sainduac, estatu eta condicione guzietaco sainduac: aberats izatu direnac, saindua, errumes izatu diren sainduac; zaharrac batzu, gazteac bertze batzu, hitz batez izatu direnac gu orai garenac eta beren exenpluaz erakusten dauzkutenac, conpreni-arazten dauzkutenac ongi; gu ere izan egun batez gitazkeela hec orai direnac. Zeren beraz gibelaturen gaitu ukhaitetic lotzez

gosatzen diren saria. Hautetsi hetan artean gehienec ez dute egin dugunaz bertzeric; bainan egin izan dute hobeki Anima-araz ditzagun, g., gure fedea eta gure esperantza. Gutaric bakhotchac badu ekhhu bat zeman; ekhia gaiten merezitzerat eta ardietserat ekhhu hura; ikhusiz alde huntan zer obligazione hertsia dugun saindu izaiteco.

Bi gausec hunkitzen ohi dioztete gizonari izpiritua eta bihotza; bere eguibidiac eta bere onac. Bere eguibidiac eta bere onac dabilzate hartzen eta bilhatzen ditugun chede guzietan. Halaber, g., horiec dira saindu izaiteco ditugun eta saindu izaiterat ekharri behar gaituzten motiboac. Saindatasuna edo saindutasuna gure eguibideric hertsiena da; eta berriz saindutasunetic edo saindu izaitetic jeu behar zaucu onic handiena. Eman dietzadazuet zuen atentzione guzia.

Zertan dago gizonaren eguibidea eta giristino gizonaren eguibidea lurraren gainean? Bere Jinco creatzailearen eta bere nausi soberanoaren nahia bethetzean, eta orano J. Kristo bere Jinco salbatzailea eta modela imitatzean. Bada orai, g., zer dauku Jincoac galdeitzen? Egin dezagun, Apostoluac erraiten duen bezala, egin dezagun gure buruen saindutzeco gure buruen saindu bilhatzeracatarasterat: hoc est voluntas Dei, sanctificatio vestra. Izan zaitezte, derauku berac, izan zaitezte saindu, ni saindu naizen bezala. - estote sancti, quia



ego sanctus sum. Behar dugu, g., casu egin huni: ez darocula Jincoac manatzen harren bertze perfecionen imitatzia, gure ahalaz gorago baitira; Ez dauku manatzen bothoretsu eta jakintsun izaitia, bera bothoretsu eta jakintsun den bezala; bainan manatzen dauku saindu izaitia, saindutasuna ezdelacotz ontasun soberanoaren eta maithatzeaz, eta lege soberanoaren bethetzeaz bertzeric; eta ontasun soberano hori maitha eta lege soberano hori bethe dezakegulacotz. Horra beraz zer eite ukhan dezakegun Jincoarekin, eta zer eite dugun ukhaitera ahal harrekin. Hori eta bera da J. Kristoc Ebanjelioan errecomendatzen dauguna, erranez izan gaiten perfet harren eta zerucoa perfet den bezala. - estote perfecti sicut Pater vester coelestis perfectus est. Hemen aren, g., ez gare heltzen ahal Jincoaren perfecionerat, urrun da; bainan behar dugu gure ahal guziaz bilhatu Jincoaren idurico izaitia, edo saindu izaitia, gure borondatia harrenarekin bat ezarriz.

Bide hortaz gare bakharric heldaco, gure creatzeco, izaitea guri emaiteco, Jincoac ukhan chedeerat. Ezagutzen dugu hari, g., chede hori: hura da bethi bere loria eta gure zoriona. Ez gaitu segur creatu izan dohatsu izaiteco munduaren arabera, ontasun egiteco, ohoretarat igaiteco, bainan ba gure buruen saindutzeco eta gure burua saindu bilha-ca-araziz, merezitzeco zorion soberano eta bethierecoa bat.

Hortaco daizcu Jincoac eman orai artio, eta oraino ere emaiten behar diozkigu laguntza suerte guciac, ala graziaren herrunkan, ala naturalezaren herrunkan. Mundua saindu bilhaca-arazteco du egorri bere Semea lurrerat. Seme adoragarri hori sorthu izan balinbada establia batetan, eta hil izan balinbada Khurutze baten gainean, sorthu izan da horrela, eta hil izan da horrela, merezitzecotzat gizonei, behar dituzten graziac saindu bilhacatzeco; hil ondoan phiztu ~~izan~~ balinbada, phiztu ~~izan~~ da, dio Apostoluac, gu saindu bilhaca-arazteco; egortzen balinbada zerutic bere Izpiritu saindua lurrerat, egortzen du saindutasuna gure bihotzei naittha-arazteco eta pratica-arazteco: Charitas diffusa est in cordibus vestris per Spiritum sanctum.

Hitz batez, g., erlisioneco misterio guciac obratu izan dira eta Elizaren sacramendu guciac establitu izan dira, gizonaren saindu bilhaça-arazteco. Jincoaren nahia da beraz saindu izaitea: hæc est voluntas Dei, sanctificatio vestra. J. Kristoc egin du zerbait gehiago; ez ditu bakharric gizonei merecitu saindu bilhacatzeco graciac bainan oraino bakiatu zaizte modelatzat saindu bilhacatzearen gainean; gure eztia hartu izan du, bere eztia guri emaiteco. Jincoaren saindutasuna, gugani urrun zagona eta casi ezagutzen ez ginuena, hurbildu izan da halaco moldez guganat, jauntziz gure naturaleza, gure emaitecotzat naturaleza horrela saindutuan (Jincoarekilaco batasunaz), saindutasunezco exemplu agerriac. Eta ziner, Jinco gizona bezi



izan balinbada ezticamendurik baten gabe lurreco ontasunentzat eta ohorentzat; besarcatu izan balinbaditu erromestasuna, beheramenduac, oinhaziac eta Khurutzea, beretzat edo beregatik besarcatu izan othe ditu? Ez, g., nahi zaucun choilki bere exemploaz eracutsi saindutasunaren bidea. Nahi balinbagare beraz izan harren egiazco discipulu, ibil gaiten harren urhatsetan; harren urhatsetan ibiliz gare bakharric izanen saindu lurrean, descantsu heriotzean eta dohatsu zeruan.

Eta ziner, g., ez othe dakigu zertarat garen deithuac? Ez othe dakigu, giristinotasunerat deithua izaitea, saindutasunerat deithua izaitea dela. Lehen giristinoei ematen zioten saindu izenaz bertzeric emaiten: vocatis sanctis. Eta zer dakharke horrec? ez saindu izaitea, ez dela giristino izaitea; zertarat ere baita deithua eta harri ukho egitea; ez denaz geroz J. Kristoren discipulu izaitea.

Bizkitartean, g., saindutasuna bakharric egiazki dohatsu egin gitzazkena; saindutasuna gabetaric, ez da behar zorionic eguriki ez mundu huntan ez bertzean; bainan saindu garelaric, dohatsu gare mundu huntacotzat (demboracotzat) eta bertzecotzat (eternitatecotzat).

Eta ziner, g., eman dezagun gizon bat munduaren arabera dohatsu dena, ontasunez bethea, okhitua, ohorezi handienetarat altchatua, ainia guzien erdian pulunpatua bezala dena, eta orobat mundu guzia bere escuco duena; gizon hori ez balinbada saindu, ez balinbada Jincoaren adiskide, bekhatuaren eta bere pasionen

gathibo balinbada, zoin egiasco plazerez da gozatzen ahal? eta
contrarat zer khechamendue, zer griña bethzen ezdiote higatzen
eta jaten bezala arima? Izan othe ditazke bakhia bere bere
ruarekhin, ez denaz geroz bakherik bekhatorosarendaco: non est
pax impiis. Alferretan bere barneco griña ezteitzea, bilhat-
zen du, plazera plazeraren gainian hartuz; plazer hoien ondotic
eta hoien hartzeco denboran berian, gelditzen zaio kheresta-
sun bat bere baithan; carga baten bezala lehertua causitzen du
bere burua, zoroinic estez handiencan; contrientzia hai zaio bar-
netic bethi ausica, beguien aintzinerat bezala emaiten dioizkola
bere crimac, eta mehatzen duela ethorkizun dohacabe batez.
Alferretan nahi luke bere burnari sinhets-arazi, ezdela ifernuric
ezdela bekhatorosarendaco pena eternalic; nahi bezin flacoa izanic
ere harren fedea, aski harcarra izanen da asaldatzeco, thormentatzeco
harren bihotza, eta bere duda guziec ezdute gibelatuco ofentsatzen
hai den Jincoan ikhustetic juje bat deusec ezin hunkitua, ira-
baria, eta crimaren mendecatzaile borthitza.

Bainan, g:, bertzerik dela arima justuaz! descantsuago eta dohat-
suago dela! contrientzia hobendun eta nahasi baten thormentarik
ezdu, eta gozatzen da munduco plazeric charmagarrienetan causi ezditakeen
bake ezti batez. Bere contzientziaren bekhatortasunaz mundu
huntan izan ahala seguratua Jincoaren adichkide dela, grasiaco
estatuan dela, causitzen du adichkidantza hortan, bethierero zorio-
-naren bahia bezala eta bertzenaz



sofri ditzazkheenen eztigarria; ikhusten ditu, nahasi gabetarik bere;
batzuen beherti, eta bertze batzuen goiti joaiten; holaco hoinc
ez dute hunkitzen gehiago; zuhurtasunarekhin behatzen diote
munduco ontasunei, ohorei, plazerei; ezdeus hutsak direla ikhusiz;
bardin zaisco nasaitasuna eta escasia, eta Apostolua bezala, batez
eta bertziaz baliatzen da bere salbamenduratzat: scio abundare
et penuriam pati. Harren egunac, egia erratecо, trebesatuac
dira zonbeit aldiz gerthacari gachtoez, bainan aski zaio zerurat
behatzia, pazientziarekhin guzien jasateco, salbamenduco bidean cau-
-situ traba guzien garhaitzeco, ba baitaki bere aguintzetan
leiala den Jincoarekhin duela bere eginbidea; ba baitaki Jincoa
orhoitzeco dela bere justiziaz, eta bethierero zoriona dagola bertha-
-tearentzat; horrec du nigarrezco haran huntan berian dohatsu
egiten, dohatsu izan dadin artio eternitatean.

Nor da, dio Errege profetac, gai izanen sartzeco eta egoiteco Jincoaren tabernaclean
pausatzeco harren mendi sainduan? Quis habitabit in tabernaculo tuo,
aut quis requiescet in monte sancto tuo? Eta profeta berac hardes-
-ten du: hura da inozentzian dabilana, eta bere eginbide guziac sindutasuna praticatzen duena bethetzen
dituena: qui ingreditur sine macula, et operatur justitiam. Hura
da bihotza zuzena duena, bethi egiaz eta lanthi minzo dena, bide
gaberic behinere lagun proximoari egiten ezduena eta hartaz gaitz-
-mintza dathiotenerenahi ezduena. Hura da oraino inspirazioni
bairen ezduena impioarentzat, Jincoaren beldur direnac ohoratzen dituen
denboran; bere hitza leialki atchikitzen duena, lukhurarie egiten
ezduena, eta bere burua irabazterat utzten ezduena presentez, inozentaren

8

lehertzeco eta galtzeco. Gisa hortaraco girena izanen da bethiere dohatsu; qui fuit hic non movebitur in æternum. Horra beraz zertan dagon egiazco saindutasuna: eta zeri zaion agindua bethierreco zorionac. Baina zer da, g., zorion hori eta nore har dezake ispiritua ongi? Hartaz jadanic goratuendireni titatke hanen ezagut-arartia. Erran dezakete, apostolu handiarekin, (giristinoec) begiec ez dutela secula ikhusi, harren beharriec ez dutela secula aditu, harren ispirituac ez duela egundaino contzebitu, Jincoac daurcan atsegin gozoac maite dutenendaco: heien atseginic ttipienac ditzen duela hamtzea lurreco atseginic handiena; egun bat hau iragaitea hobe dela, mila urthe hemen palaciori ederreitan beino; hetarik azkena, dohatsuago dela, munduan erregerik dohatsuena beino, bere eguinic dohatsuenean. Horra, g., saindutasunaren saria, zerueco loria; gloria hæc est omnibus sanctis. Eta zorion hori ez dauen hutz egiten ahal, ontasun handi guziac zerratzendituz, eta bethierecoa da, ez da secula finituco. Zer behar da gehiago, g., gure mutatzeco, gure lehia araztecco, saindu bilhacatzerat? Utz ditzagun munduetarrei lurreco ontasunac, ohoreac, plazerac, hain laster dohazinac, galtzeco eta bilhatzeco bakharric, ontasun eta plazer ederrago eta hobeago bathiun. Ez dezagun izan antsiaric baten aberats izaiteco, estimatuac izaiteco, dohatsu izaiteco munduan huntan; saindu balinbagara, saindutki bizi balinbagara, guziac ikhusiren ditugu bertze munduan. Halabiz.

J. M. J.

ECOLE LIBRE DE GARÇONS

HASPARREN

# PROTÈGE-CAHIER

*Cahier de* ..............................................................................

*appartenant à* ..............................................................................

..............................................................................

..............................................................................

FSC
MIXTO
FSC® C001636